zuen Altuberen tesis hori erabiliaz. Ba dauka bai meriturik Altube Jaunak bere ereslanetan, sortu zuen giroagaitik eta bere tesis hoiek emon digun ondorioagaitik.

Amaitzerakoan, Mondragoiko agintariei eta Euskaltzaindiari eskari bero bat: Sebes Altube eta Lertxundiri omenaldi hau eskeini diogu, baina gaur goizean ez dedin amaitu eta gure ezkerona betikorra izan daiten, Altube Jaunaren izena kale bateri jarri dezaioten Gernikako agintariei ofizialki eskatu egiozue.

Eta gaizki esanak, parkatu.

* * * * *

Donostia, 73-VII-27

USA LEKU-IZENA ETA BERE ESAN NAHIA

Juan San Martin

Leku-izenak, agiri zaharrak bezala dira, tokian tokiko bezala eta aldakuntzarik gabe jaso beharrezkoak. Lekuko jarri behar diranean, agiri zaharretan grafia errespetatu behar den erara, leku-izenak bertako dialektu edo euskalkian jaso beharrezkoak dira.

Urtetxoak dira Gorbeako *Usategieta* eta Elgea-mendiko *Usakoaitza* mendi tontorreri izena zuten bezala gordetzen ahalegindu nintzena, baina eginahalak egin, mendizale gehiago ziren zuzenketa ustean *Usotegieta* jartzen zutenak, eta denborarekin *uso* (*o*-kin, *a*-ren ordez) bezala gelditu da mendizaleen Federazioko listetan. Ez ordea Gorbeako eta Elgea-mendietako artzaien artean; hauen ahoetan *usa* iharraitzen du.

Denok dakigu, Euskaltzaindikoak behinik-pehin, usoen tegia, izenez *usategi* bihurtzen dala, *usotegi*-ren ordez. Baina, Gorbea eta Elgea-mendiko gailur horien kasu hortan, nere ustez, ez dute zer ikusirik ere uso hegaztiarekin, eta bai herri basoentzat erabiltzen zen *usa*-rekin.

Esandakoaren argigarri zenbait ageri emango ditut. Lehendabizi zahartasuna adiaraziko diguten batzuk, gero idazle eta euskalari batzun eritziak, ondorean maiztasuna agertuko duten leku-izenen zerrenda eta azkenik usoekin ikustekorik ez duten leku-izenak. Horiek ikusi ondorean konturatuko gara, guttienez, bi esan nahi dituztela gure leku-izenetako *usa*-k: *Uso* (erdarazko "paloma") eta *usa* (= "terreno comunal") sustraietatikoak.

Agiri zaharretan

Usalbaque, 1346an, Elgoibarko "Carta-puebla"n agertzen denez Madariaga eta Marikutxa inguruko mendi baten izena. Gaur ere larrak dira eta dolmen baten arrastoak daude.

Usaguiola de Leya, 1388an, Bizkaiko Ziortzako (Zenarrutzako) Kolejiataren saroi edo eskortaren izena, Iturrizak *Historia General de Vizcaya-ren* (lehen edizioa) 167garren orrialdean dakarrenez.

Usoalo, 1484an, Azkoitian, I. López-Mendizabalek *Etimologías de apellidos vascos*-en dakarrenez.

Usaondo, 1484an, Azkoitian, I. Lopez-Mendizabalek aipatutako liburuan.

Usarraga, 1536an, Antzuolan, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usabaraza, 1566an, Azpeitian, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usabiaga, 1570an, Azpeitian, I. Lopez-Mendizabalek aipatutako lanean eta A. y A. Garcia Carraffa anaiak *El solar Vasco-Navarro*-ren VI. tomoan.

Usabel, 1575ean, Arratian, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usa-iturrieta, 1578an, Elgetako leku-izena, bertako Udaletxeko Artxiboan aurkitu dudanez.

Usaetxe, 1587an, Azpeitian, I. López-Mendizabalek dakarrenez.

Usandizaga, 1738an, Asteasun, I. Lopez-Mendizabalek eta Garcia Carraffa anaiak dakartenez.

Usarralde, 1741ean, Betelun, I. Lopez-Mendizabalek eta Garcia Carraffa anaiak. Gainera, A. eta A. Garcia Carraffa anaiak beste deitura batzuk ere agertzen dituzte, urte gabe, *Usansolo* Galdakaon, *Usaola* Gordexolan eta Durangon, eta *Usategi* Lazkaon eta Galdakaon.

Usaberarza, 1754an, Hernaniko mendi baten izena M. Larramendik bere *Corografía de Guipúzcoa*-n dakarrenez.

ERITZIAK ETA AGIRIAK

J. A. Mogelek *Peru Abarka*-n (1881ean Durangon egin zen edizioan), 110garren orrialdean dio: "Baagoz inguruban usa edo erri-basuac". Eta 1899an argitaratu zen *Peru Abarka*-ren erdal itzulpenenan, 60. orrialdean: "*Ya hay en los alrededores montes comunales*", dio. Ideia bera iharraiturik, Justo Garatek *La época de Astarloa y Moguel* liburuaren 68. orrialdean, *Peru Abarka*-ri buruz ari delarik, Mogelen eritzia agertzen du: "*Da "usa" como bosque comunal, lo que sirve para Usánsolo y otros vocablos.*"

R. M. de Azkuek *Dicc. Vasco-Español-Francés*-aren bigarren tomoko 382garren orri-aldean: "*USA (B, G), ejido, campo o monte común de los pueblos*". (ondorean ihartzen dituen hitzak Mogelen *Peru Abarka*-tik hartuak dira).

Gregorio de Mujikak *Monografía Histórica de la Villa de Eibar*-en 10. orr. hara zer jaso zuen: "*En un acta de* 1766 *se*

dice que se saquen a candela las Nobalias, usas y montes. En otra de Junio de 1767 *se dice "Regulación de las tierras comunes que llaman usas, hecha por...". En* 1790 *se dice que hay una usa vacía en la inmediación de la casería achekua". En los documentos del Archivo se habla mucho de cuestiones referentes a estos terrenos comunales, que aparecen citados con variedad de nombres. Unas veces se les nombra con el dictado español de novalías, otras veces se les llama* eunos o unos, usas *y* quinones, *reservándose el nombre especial de* egurzas *para el caso particular en que terreno comunal sirva para que los vecinos se provean de leña.* Eunos, usas *y* quinones *son nombres apenas usados en nuestro país. A* usa *da el docto euskerálogo Sr. Azkue en su excelente Diccionario esta significación: "ejido, campo o monte comunal de los pueblos". Quinon es indudablemente el Kiñon mencionado en el citado Diccionario con esta significación: "parte de terreno que cede el pueblo en el reparto vecinal".* Euno o Uno *no lo encontramos en el Diccionario vasco ni en el español".*

M. de Unamunok, bere lan batean, *Derecho consuetudinario de España, I - Vizcaya* ("Obras completas", edic. Barcelona-Madrid, 1958, tomo VI, p. 284), esaten du: *"En algunos pueblos, donde el monte común era muy extenso o se hallaba a corta distancia, tenían facultad los vecinos para entrar en él siempre que quisieran y tomar lo que necesitaran: tal, por ejemplo, en Cenarruza. Llamaban a esto* usiek, *los usos."*

J. Caro Barojak, *Dos notas descriptivas: La agricultura en Vera de Bidasoa y caza de palomas en Echalar* lanean ("Eusko-Jakintza", vol. V, 1951, 119. orr.) honako hau dio: *"Generalmente todos los puntos geográficos que tienen nombres tales como Usateguieta, Usategui, etc., tenían antes palomar (Usoa = paloma; Ate = puerta; tegui = sitio) y se conocen altos a los que los cazadores van con escopeta a acechar el paso de las palomas en los valles navarros de Vera, Bertiz, Baztán, Aezcoa, Salazar, el Roncal y más al interior en las sierras de Urbasa y Andía.*

L. Michelanak, *Apellidos vascos*-en 106. orrialdean: "592. *uso* "paloma" (empleado también como nombre propio): *Usabaraza, Usabiaga* (*Usobiaga,* de *usa-obi-*), *Usaeche, Usandizaga, Usaola, Usarte, Usoategui, Usularre.* "Generalmente todos los puntos geográficos que tienen nombres tales como Usateguieta, Usategui, etc., tenían antes palomeras" (J. Caro Baroja, E. J., V, 119). Aunque *urzo* es una var. de *uso,* en el caso de *Ursua, Ursuegui* será mejor pensar, p. ej., en *(h)ur.*

I. Lopez-Mendizabalek, *Etimologías de apellidos Vascos*-en 732/733 orrialdeetan: *Usa* = grama.

José A. Mugica-k, *Los apellidos de Iberia* (Bilbao, 1965) liburuaren 153garren orrialdean: *Usa* = grama; *Usa* = pasto.

Plazido Mujikak bere *Diccionario Castellano-Vasco*-n, 447. orr.: "vocablo *común.* 4: *monte común, terreno comunal, ejido* = erri-baso, uri-baso, erri-lur... usa BG.

LEKU-IZENEN MAIZTASUNA

Izenon maiztasuna adiarazteko, toponimia gai honetaz egin diren bilketa zerrendak eta aukera izan dugunean beste zenbait lanetan aurkitu ditugunak hartuko ditugu lekuko.

Luis de Eleizalde-ren *Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas,* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, XX (1964) aldizkarian *Usa* sustraidunak 132/133 orrialdeetan dakarzki. Baina, beretarik, *usa,* herri-baso edo herri-lurrekin zer ikusirik eduki leikeenak bakarrik jasotzen ditut, adibidez: *Usaba,* campo de Zudaire (Nab.). *Usabakotxena,* paso de palomas en la sierra de Elguea (Oñate, Gip.). *Usabaso,* monte de Ondárroa (Bizk.). *Usaberartza,* caserío de Deba (Gip.). *Usabiaga* o *Usabiaa,* caserío de Itxaso (Gip.). *Usagua,* heredad de Buruaga (Zigoitia. Alaba). *Usain,* término de Mezkiriz (Erro, Nab.) *Usako,* molino de Zañartu (Oñate, Gip.). *Usalortu,* caserío de Yurre (Bizk.). *Usamendi* y *-berri,* caseríos de Villabona (Gip.). *Usandia,* término de Villafranca (Gasteiz, Alaba). *Usandizaga,* caserío de Azpeitia (Gip.). *Usansolo* (antes

Uzuensolo), barrio de Galdakano (Bizk.). *Usategieta,* término de Foronda (Alaba). *Usao,* caserío de Bengoetxe (Galdakano, Bizk.). *Usaran,* fuente y término de Argiñao (Gesalatz, Nab.). *Usarana,* monte del ayuntamiento de Iruraiz (Alaba). *Usarditzanea,* véase Sorarrain-borda. (*Sorarrain-borda,-Emparan,-Usarditzanea,* caseríos de Larraul, Gip.). *Usarraga-aundi, -berri, -maisakoa, -santi* y *-txiki,* caseríos de Deba (Gip.). *Usarroa,* molino de Deba (Gip.). *Usasti,* véase Oruesagasti. *Usaya,* monte de Ezkarai (Logroño).

Eleizalde ber-berak, vokalak *a*-ren ordez *e* formaz aurkitzen diren toki-izenak: *Use,* caserío de Mendata (Bizk.). *Usebal,* heredad de Olano (Zigoitia, Alaba). *Usebaso,* bosque de Ayangiz (Bizk.). *Useran,* término de Bidaurre (Gesalatz, Nab.). *Useti,* caserío de Garai (Lezama, Bizk.). *Usetxi,* casa de Arazuri (Olza, Nab.). Badira beste batzuk *Us*-etik hasten direnak ere eta gehienok arestian jarritako adibideekin zer ikusia dutenak noski: *Usiasandi,* heredad y terreno comunal de Gizaburuaga (Murelaga, Bizk.). *Usibide,* término de Nabatz (Juslapeña, Nab.). *Uskorta,* caseríos de Larrazkitu (Bilbao, Bizk.). *Uskuain,* terreno inculto de Arbitsu (Nab.). *Uslakabe,* término de Bera (Nab.) *Usola,* término de Luzaide (Nab.). *Usolo,* heredad de Dima (Bizk.). *Usondo,* véase Oxirondo. *Ustapide,* caserío de Arrona (Gip.). *Usalde,* heredad del caserío Usua en Ibarrola (Murelaga, Bizk.). *Usurbe,* caserío de Beasain (Gip.). *Ususkobarrena, término de Abaurrea-alta* (Nab.). Zerbait urrutiago izango dira noski *Uza, z*-kin aurkitzen direnak, inoiz *s*-tik aldatuak badira ere. Hala ere, ez dira alde batera baztartzekoak era orokor batean begiratu behar diren garaian. Ondorenean datozten batzuk, *Uzabal* = Usa-zabal; *Uzarreta* = Usa-zaharreta, e. ab. izan ditezke. Hauekin bukatzen dugu L. Eleizalderen zerrenda: *Uzabal,* caserío de Tolosa (Gip.). *Uzabaleta,* monte de Urgoiti (Galdakano, Bizk.). *Uzabaleta,* monte de Legazpia-Oñate (Gip.). *Uzarreta,* monte de Isatsondo (Gip.). *Uzegi* (Hucegui), variante del actual Uztegi. *Uzilarri,* molino de Arakaldo (Bizk.).

Gerardo Lopez de Guereñu, *Toponimia alavesa* argitaratzen hasi zen "Anuario de Eusko-Folflore"-ren XVI.tomotik

(1956); *U* letrara oraindik ez da heldu, baina *Usa* sustraidun leku-izenen harteko jasoak ditu: *Usabelarza, Usansolo, Usabiabiaga, Usandizaga, Usaguerra, Usaluzeta, Usanaga, Usandia, Usarana,* eta abar.

Ignacio Zumaldek, *Historia de Oñate* (San Sebastián, 1957) liburuaren 358 garren orrialdean dakar: *Usabakotxena.* "En 1853 se comenzó en el término de Usabakotxena a explotar una mina de carbón mineral, en la que en 1857 seguían todavía trabajando, es de suponer sin grandes resultados."

J. M. de Barandiaranek ere jasotzen du Villafranca de Ordizia-n *Usabe-gaña;* ikus, "Munibe", VIII (1957) 86garren orrialdean (Eusko-Folklore". Materiales y cuestionario, 3.ª Serie, n.º 9).

Jesus Elosegik, *Catálogo dolménico del País Vasco* (Zaragoza, 1958), Rev. "Pirineos", 306/307 orr., Sarako *Usategieta*ko Larria eta Tonbako-erreka izeneko trikuharriak aipatzean, katalogazioaren 227, 228, 229 eta 230 fitxetan; eta 282.orr. Gorbeako Odoriagako *Usengatzu* trikuharria, 134. fitxa.

Fr. Luis Villasantek Graziano Anduaga Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin osaturiko *Aitonaren uzta* bilduman (Zarautz, 1961), 25/26.orr., *Usaakotxena* dakar Gaboño mendia eta Artiako San Juan baserriaren tartean. Eleizaldek eta Zumaldek aipatzen duten *Usabakotxena* ber-bera da.

Julio Caro Barojak, *Los vascos y la historia a través de Garibay* (San Sebastián, 1972) liburuaren 79garren orrialdean: *Usaco,* Oinatiko San Prudencio hauzoko baserria. Hauzoaren izen zaharra Zañartu da, Eleizaldek bere zerrendan eman zuen bezala, *Usako* izen berau aipatzean.

Justo Garatek, *Dos raíces geminadas en el vocablo "Guipúzcoa"* lanean, "Fontes Lingvae Vasconvm", IV (1972), n.º 11, 146garren orrialdean dakar *Usakua,* Donamaria (Nafarroa) herriko leku-izena. J. Garate berak, lan honetan, 139garren orrialdean ematen du *Usa*-ren balioa edo esan nahia, "terreno comunal" bezala Bizkaian ezaguna zala azalduaz, J. A. Mogelen *Peru Abarka* lekuko hartzen duelarik. Lehen ere aipatua

dugu, *Usa*-ri buruzko eritziak agertzean, *La época de Astarloa y Moguel-en* ere uste bera adiarazi zuela.

Herrietan bada beste bat ere zerrenda hoietan ez datorrena, Gipuzkoako *Usurbil*, 1371an "*Carta-puebla*" hartzean *Belmonte de Usúrbil* izenez. Eta mendizale garanontzat oso ezagunak dira Gorbeako *Usategieta* tontorra, Andia-mendietako (Lizarraga, Torrano) *Usabide* eta Elgea-mendiko *Usakoaitza*, Arlabandik hurbil Arabako Marieta eta Gipuzkoako Gatzaga mugatzen dituen mendia. Orain, mendizaleen Federazioko listan ere, *Usokoaitza* bezala agertzen da, eta Instituto Geográfico y Catastral-eko mapan (Mapa 1:50.000, hoja 112, 2.ª edic. 1954) 915 m.-dun gailur edo kota, okerrez *Isicoaitza* jartzen da, *Usakoaitza* jarri beharrean. Mapa berean (hoja 113, 1.ª edic. 1944), *z*-kin dator *s*-ren ordez, *Uzacoechena* dalakoa.

USO-TIK NEKEZ ETORRI DITEZKENAK

Ukatu ezinezkoa da, *Usa* horietako asko *uso* = "paloma"tik datoztela, *Uso-tegi* = *Usategi*-ra; *Uso-etxe* = *Usatxe* edo *Usetxe*-ra; eta abar, legez horrela bihurtzen direlako. Baina sustrai hoietako leku-izenik gehientsuenak *usa* = "ejido" edo "terreno comunal"etik datoztela esango nuke. Leku-izen bezala duen maiztasuna agertzeko bildu ditudanetan asko baitira *uso* = "paloma"tik ezinezkoak. *Usakua, Usako, Usagiola, Usandia, Usaondo, Usao, Usarralde,* e. ab. harrigarriak baitira. Harrigarriak diren bezala, *o*, *a*-ren ordez dutenen arteko *Usola, Usolo, Usondo*..., heurak *usa* = "comunal"ekin hobeto ulertzen diranez gero. Eta, behar bada, *Uside, Uskorta, Uskuain, Usurbe, Usurbil, Uzelai,* e. ab. *usa*-tikako bezala errazago konprenitzen dira.

Dena dela, *uso* = "paloma"tik izatean, *Usakoaitza*-k *Usaitza* edo *Usoaitza* behar zuen izan, *-ko* atzizkia galdurik; eta *Usabide*, Andia-mendiko bide bat da, gizonak eta abereak ibiltzeko, eta ez usoak ibiltzeko. Puntu honetan ez dugu zalantzarik.

Honegatik, *uso*-tik nekez etorri ditezkenen arteko ditugu, adibidez, honako hauek: Araban, *Usakoaitza* (*Arlabango* mendietan), *Usagua* (Zigoitia), *Usandia* (Villafranca, Gasteiz), *Usarana* (Iruraiz); Bizkaian, *Usagiola* (Ziortza), *Usansolo* eta *Usao* (Galdakaon), *Use* (Mendata); Gipuzkoan, *Usako* (Zañartu, Oinati), *Usandizaga* (Asteasu), *Usabiaga* (Azpeitia), *Usabe-gañe* (Ordizia), *Usaberartza, Usarraga-aundi* eta *Usarroa* (Deba), *Usarditzanea* (Larraul), *Usaberarza* (Hernani), *Usartza* (Eibar); Nafarroan, *Usakua* (Donamaria), *Usabide* (Andiako mendietan bide baten izena), *Usarralde* (Betelu), *Usaba* (Zudaire), *Usain* (Mezkiriz), *Usaran* (Geselatz).

Bestalde, *Usabaso, Usaberartza, Usako, Usalortu, Usamendi, Usaluzeta, Usandia, Usandizaga, Usansolo, Usao, Usarroa, Usaran, Usolo* eta abarrek berez adiarazten dute "ejido" edo "comunal"etiko sustraia dutela.

Usa = "terreno comunal" bera, erdarazko "uso"tik etorri diteke. Baina, esan beharra dut, leku-izenik gehienok oraindik euskaraz egiten den tokietakoak direla, edo euskarazko toki-izenak onduen gordetzen direnetakoak, eta beti ere euskaraz egiten den partetik ez hain urrutikoak. Bestalde, euskal toponimia urri den lekuetan aurkitzen ez dena. Honez gainera, kontu izan behar dugu hitzaren aintzinatasuna arestian aipatu ditudan agiri zaharretakoak haintzat harturik. Horiek adiarazten bai digute izenon aintzinatasuna.

Mogel, Azkue eta Gregorio Mujikaren eritzi eta agiriak ezagutu ondorean, bilketazko txosten honen bidez, leku-izenen ikerketan aurrerantzean kontu gehiago eskatzen dugu *usa* = "comunal"en alde; eta, kasu bakan batzuk ukatzeke, ez hainbeste *uso* = "paloma"ren alde.